

ESKOLAGUNE

Ekoetxea Txingudi

Txingudiko hegaztiak

Batxilergoa

ARLOA/IKASGAIA: Biologia, Geologia eta Ingurumen Zientziak

Zuhaitzetan, uretan, adarretan, hegan, taldean, bakarka... Hegaztiak dira Plaiaundiko benetako izarrak. Kilometro bateko ibilbide honetan, bertan dauden hegaztiak ikusi eta entzun ahal izango ditugu. 20 espezie baino gehiago identifikatzera ausartzen al zarete? Ziur gaude lortuko duzuela!

Baina hori ez da dena, eraztunketaren mundu harrigarrian murgilduko gara hegaztien eraztunketa saio bateko simulazioan parte hartuz, zientzialari profesionalek egiten duten bezala.